

## **IKERTZAILEAK ERAKUNDE ETA ENPRESEKIKO LANKIDETZAZ PRESTATZEKO LAGUNTZA DEIALDIA (2019):**

### ***Onartutako eskarien behin betiko zerrenda***

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (IGBB) ontzat eman ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak deialdi hau argitaratu zuen:

#### **IKERTZAILEAK ERAKUNDE ETA ENPRESEKIKO LANKIDETZAZ PRESTATZEKO LAGUNTZA DEIALDIA (2019)**

Deialdiko 5.1 oinarriak dio zortzi kontratu eskainiko direla modalitate honetarako. Eskariak aurkezteko epearen barruan zazpi aurkeztu dira.

Ikusi da eskariak betetzen dituztela oinarrietan zehaztutako gutxieneko baldintzak, eta eskatzaile guztiek aurkeztu dituztela eskatutako agiriak.

Beraz, aurkeztutako eskari kopurua eskainitako kontratu kopurua baino txikiagoa denez, ez da beharrezkoa egitea eskarien ebaluazioa, laguntzak emateko hurrenkera zehazteko.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, ERABAKI DA agindua ematea argitaratzeko errektoreordetzaren webgunean onartutako eskarien behin betiko zerrenda.

#### **UPV/EHU<sub>n</sub> AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:**

Eskatzaileek jakinarazi egin beharko dute laguntza onartzen duten ala ez, mezu elektronikoko bat bidalita helbide honetara: [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus).

Laguntza onartu duten guztiek **2019ko urriaren 31 baino lehen** bidali beharko dituzte dokumentu hauek, PDF formatuan eta posta elektronikoz, helbide honetara: [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus).

- Eskarian aipatutako doktorego programako matrikularen gordekina.
- Erakundeko ordezkari legalak sinatutako hitzarmenaren bi ale. Webgunean dagoen ereduan ezin da egin aldaketarik. Ez da beharrezkoa hitzarmenaren aleak posta elektronikoz bidaltzea. Paperean baino ez dira aurkeztu behar.
- Kasuan kasuko ikerketako etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.

Ondoren, UPV/EHUko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira dokumentu horiek.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzako langileek aurkeztutako dokumentuak gainbegiratuko dituzte eta, ondo badaude, beste agiri hau aurkeztea eskatuko da:

- Deialdian hautatutako pertsonak eta erakundeak izenpetutako kontratuaren kopia.

**Laguntza ordaintzeko, behar bezala aurkeztu beharko dira gorago aipatu diren dokumentu guztiak. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak dokumentu horiek gainbegiratuko ditu, eta laguntza ordainduko du egiaztatu ondoren eskatzaileak**

**eta enpresak betetzen dituztela deialdiko oinarrietan aipatutako baldintza guztiak. Kasu horretan baino ez zaio bidaliko eskatzaileari banakako ebazpena.**

**ERREKURTSOAK:**

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtso hori jarriz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsoa ezetsizat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsoa ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik aurrera kontaktzen hasita (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: 123 eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Bilboko administrazio auzietarako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera kontaktzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

Leioa, 2019ko urriaren 2a

**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA  
IKERKETAREN GESTIOKO ZUZENDARITZA  
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA**

**Onartutako eskarien behin betiko zerrenda**

KODEA	NAN	EMAITZA
PIFIND19/02	51493132L	Hautatua
PIFIND19/07	CA97424BW	Hautatua
PIFIND19/03	72847832R	Hautatua
PIFIND19/01	72757633P	Ukoa
PIFIND19/04	YB185624	Hautatua
PIFIND19/05	72592478Q	Hautatua
PIFIND19/06	44348374G	Hautatua